






Azterketa honetarako soilik herritarren postontzietara igorritakoa izan dugu kontuan. Informazio gehiago jasoz gero, dokumentu hau osatu eta eguneratuko dugu.

Hona hemen jasotakoa herriz-herriz:

Aiara

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	ez da aipatzen
	triptikoa	euskara gaztelania	gaztelania euskara	eduki ia osoa gaztelaniaz	proposamenak egiten ditu (*)
	esku programa 16 orrialde	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	euskararekiko erasoak aipatzen ditu
	esku orria	euskaraz	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	legegintzaldiaren balorazioa (*)
	esku programa 8 orrialde	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	ez da aipatzen
	eskutitza	gaztelania euskara	gaztelania euskara	eduki bera hizkuntza bietan gaztelaniaz nabarmenduta	ez da aipatzen
	eskutitza	gaztelaniaz	gaztelania		ez da aipatzen



(*)

EAJ

"Euskal jolas txokoen programazioaren alde apustu egitea, familien kontziliazioari eta euskararen erabilpena bultzatzeari lagunduz"

"Euskararen erabilera handitzea udalean eta herrian, Aiara euskaldunago baten alde apustu eginez"

EH Bildu

"Aiarar euskaldunen eskubideak behin betiko bermatzea"

"Udaleko arnasmuneak indartu, babestu eta ugaritu, Udala bera ere arnasmune bihurtu"

"Aiaran euskaraz osorik bizitzea ahalbidetu"

Legegintzaldian lortutakoa: "euskara ikasteagatik diru-laguntzak %100 izateko ordenantza", "euskara ludikoa adinekoentzat".

Lortu ez dena: Udalak "euskararen kontrako epaketak errefusatzeko", "Euskalgintza Kontseiluaren diru-laguntza 798 eurora igotzea"



Amurrio

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	ez da aipatzen
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku programa 32 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	euskararekiko erasoak aipatzen ditu
	aldizkaria 4 orrialde	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	proposamenak egiten ditu (*)
	eskutitza	gaztelania euskara	gaztelania euskara	eduki bera hizkuntza bietan gaztelaniaz nabarmenduta	ez da aipatzen
	diptikoa	gaztelania euskara	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	gaztelania euskara	euskara gaztelania	edukiaren %50 euskaraz	ez da aipatzen
	triptikoa	gaztelaniaz	gaztelania euskara	soilik programaren izenburuak euskaraz, gaztelaniaren ostean	ez da aipatzen



(*)

EAJ

"Euskaldunago izatea"

"Ludotekaren bitartez, haurren artean euskararen erabilera sustatzea".

"Kalteberatasun-egoeran dauden ikasleei euskararen ezagutza erraztea

"Euskara sustatzeko Plan berria egitea"

EH Bildu

"Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko arrakala iraultzea posible"

"Ezinbestekoa da hizkuntza politika errealistak diseinatzea, euskara planetan xahututako dirua euskararen erabileran benetako inpaktua izatea eta ordezkari politiko euskaldunak lehen lerroan jartzea. Hau guztia, udalak euskara teknikari bat izan ezean, ezinezkoa izango da"

Orain Amurrio

"Euskararen erabileran inbertitu behar da; beraz, euskararen garapena bultzatzen jarraituko dugu"



"Udalak onartutako Euskara Plana betetzea eta euskararen erabilera bultzatzeko diru-partidak handitzea"

Elkarrekin- Guk Bai

"Udal euskaltegia sortzea, euskararen ikaskuntzaren doakotasuna bermatuz"



Arrankudiaga-Zollo

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	aldizkaria 16 orrialade	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta eta zabalago	egindakoa azaldu eta proposamenak egiten ditu (*)
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	proposamenak egiten ditu (*)

(*)

EH Bildu

"Euskararen erabateko apustua da gure nortasun-ikurretako bat"

"Euskara Udaleko lan eta zerbitzu hizkuntza izatea lortu dugu eta auzotarren eta udalaren arteko harremanak euskaraz izatea sustatzen jarraituko dugu Euskararen Erabilpena Sustatzeko Planaren bidetik"

"Euskara ikasteko laguntzak mantenduko ditugu eta hedabide euskaldunak bultzatuko ditugu"





"UEMAn sartu izanak euskararen erabilpenean urrats eraginkorrak egiteko aukera berriak zabaltzen dizkigu eta egitasmo zehatzak burutuko ditugu"

EAJ

"Euskara ikastea sustatzea, ikastaroaren kostua ordaintzeko zuzeneko laguntzen bidez"



Artziniega

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	esku programa 16 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	triptikoa	euskara gaztelania	gaztelania euskara	eduki gehiena gaztelaniaz	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	gaztelaniaz	gaztelania euskara	soilik programaren izenburuak euskaraz, gaztelaniaren ostean	ez da aipatzen
	esku orria 4 orrialde	gaztelania euskara	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	ez da aipatzen

(*)

EH Bildu

"Euskara, Berdintasuna edo Ingurumeneko herritarren foroak sortzearen alde"





"Euskararen Udal Erabilera eta Normalizaziorako Plan berriaren aplikazioan lan egitearen alde"

EAJ

"Euskararen sustapena eta indartzea egunerokoan"



Laudio

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	proposamenak egiten ditu (*)
	egunkaria 16 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	bi aldizkari eduki osoarekin bat euskaraz bestea gaztelaniaz	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	euskararekiko erasoak aipatzen ditu
	aldizkaria 6 orrialde	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	proposamenak egiten ditu (*)
	eskutitza	gaztelaniaz	gaztelania		ez da aipatzen



(*)

EAJ

"Kulturaren Plan Estrategikoa bultzatuko dugu, azpiegitura berriekin, kultura-jarduera ireki gehiagorekin eta euskararen erabilera bultzatuz"

EH Bildu

"Euskarari zentralitatea eta zeharkakotasuna emango diogu (...) erakundeetan, hezkuntzan, espazio sozioekonomikoan, kulturaren... euskara sustatu eta lehen lerroan jarriko dugu"

"Udalak laguntza handiagoa eskaini behar die euskara, berdintasuna eta aniztasuna sustatzen dituzten proiektu berritzaileei"

"Euskal hiztunon eskubideak eta erabilera babestu behar ditugu, eta horretan arnaguneen garrantzia itzela da"

"Euskararen eta kulturaren arteko hariak" sendotu

Elkarlana eta auzolana "euskaltzaleak aktibo mantentzeko bideak zabaltzeko"

"Hizkuntzaren prestigioa eta erabilera esparru guztietan sustatuko dugu"

"Transmisioa ere bada ardatza; lagun, familia, gazte eta haien arteko ekintzak eta elkarreragina hauspotuko ditugu"

"Helduen euskalduntzearen alde lan egin eta doakotasuna lortzeko urratsak emango ditugu, (...) horretarako beka sistema berria ezarriz, (...) ikasketa presentziala zein online bidezkoa" kontuan hartuta

OMNIA

"Euskaraz biziko den Audio baten alde"

"Euskara gure ondarea da, guztiona, eta euskara sustatzen eta normalizatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Euskararen erabilera modu naturalean sustatzearen aldeko apustua egingo dugu eremu guztietan: kalean, lanean,..."

"Laudion ditugun hizkuntzen aniztasunak batzen gaitu eta ezin dira galdu. Euskara gure altxorretako bat da eta naturaltasunez babestu behar dugu"



Okondo

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	proposamenak egiten ditu (*)
	esku programa 8 orrialde	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku programa 16 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	euskararekiko erasoak aipatzen ditu
	eskutitza	gaztelania euskara	gaztelania euskara	eduki bera hizkuntza bietan gaztelaniaz nabarmenduta	ez da aipatzen
	eskutitza	gaztelaniaz	gaztelania		ez da aipatzen



(*)

EAJ

"Euskararen erabilera sustatzen jarraituko dugu, gure ondarerik baliotsuena da, eta eskaintza kulturala berriz diseinatzearen alde egingo dugu, herritarrei irekia"

Okondo Aurrera

"Euskara gure nortasunaren parte da (...) ez dugu ulertzen gure herriarentzako proiektu bat gure lurraldeko kultur ondasun garrantzitsuen gabe"

"Bada garaia euskarak legegintzaldi honetan galdu duen tokiari berriro heltzeko, inoiz galdu behar ez zuen protagonismoa emanaz"

"Okondo Euskaraz programari ekingo diogu berriro, erabilera sustatzeko politiken barruan"

"Euskararen presentzia bermatuko dugu Okondoko bizitza publikoan"

"Ahaleginak areagotuko ditugu euskararen ikaskuntza sustatzeko tailer eta ikastarorekin"

EH Bildu

"Tailerrak, antzerkiak, guraso-lagunak eta, batez ere, publiko guztiarentzako ekintzak euskaraz egiten jarraituko dugu, baita Okondoko emakumeen ahalduntzerako jarduerak ere"



Orozko

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	esku programa 12 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	proposamenak egiten ditu (*)
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	ez da aipatzen
	esku programa 12 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki ezberdinak hizkuntza bakoitzean, eduki gehiago euskaraz	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	ez da aipatzen
	esku orria	gaztelaniaz	gaztelania euskara	eduki bera hizkuntza bietan	ez da aipatzen
	esku orria	gaztelania euskara	gaztelania euskara	edukiaren %50 euskaraz	ez da aipatzen
	esku orria	euskara gaztelania	gaztelania euskara	edukiaren %40 euskaraz	ez da aipatzen



(*)

EAJ

"Euskararen sustapena udal-jardueraren zeharkako ardatza izango da"

"Euskara Plana betetzen dela zainduko dugu, neta, beharrezkoa bada, eguneratu egingo dugu, gizartearen errealitatera egokitzeko"

"Egunerokotasunean euskararen erabilera bultzatuko dugu, lan-eremutik eta esparru akademikotik kanpo harremanak euskaraz izatera animatzen duten kultura eta aisialdia proposamenak sustatuz"

"Euskarazko kultura sustatuko dugu gure udal zerbitzuen kultur programazio osoan"





EH Bildu

"Euskerie ahoz aho aituteko ta euskieraren normalizaziñoaren aldeko pausuak emoten jarraituteko erronka deukogu"

"Normalizaziñoaren aldeko ekintzetarako aurrekontue handitutea ta udal zerbitzu guztiek euskieraz bermatutea gure dogu"



Urduña

	aztertutakoa	lelo nagusia	hizkuntza	ezaugarriak	hizkuntza politika
	esku programa 16 orrialde	euskaraz	euskara gaztelania	eduki gehiago gaztelaniaz euskaraz baino	proposamenak egiten ditu (*)
	esku orria	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan	ez da aipatzen
	triptikoa	euskara gaztelania	euskara gaztelania	eduki bera hizkuntza bietan euskaraz nabarmenduta	ez da aipatzen
	esku orria	euskara	gaztelania euskara	euskaraz edukiaren %20	ez da aipatzen
	esku orria	gaztelania euskara	gaztelania euskara	edukiaren %50 euskaraz	ez da aipatzen
	esku orria	euskara gaztelania	gaztelania euskara	edukiaren %40 euskaraz	ez da aipatzen

(*)

EH Bildu

"Euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza ohituretan eragiteko programak areagotu eta indartu, kontuan izanik, heldu euskaradunak ere"

"Gazteak eta 30-45 urteko helduek euskaraz bizitzeko esperientzia berriak zein trebakuntza saioak antolatu, euskaraz aritzeko gaitasuna dutenen artean sarea ehuntzen lagundu eta hizkuntza ohituretan eragiteko"